

URDAIBAI ETA URETAKO HEGAZTIAK

URDAIBAI Y LAS AVES ACUÁTICAS

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBA

Bizkaiko bihotzean kokaturik, Urdaibaiko Oka ibaiaren arroa hartzen du. Ibaia Oiz mendiaren maldetan behera etortzen da eta, Mundaka edo Gernikako estuarioa eratu ondoren, Bizkaiko itsasoan uzten ditu bere urak. 1984. urtean espazio hau Biosfera Erreserba izendatzearen helburua bertako ekosistema baliotsuen kontserbazioa eta horko biztanleen ongizatea bategarri bihurtzea izan zen.

Urdaibaiko ekosistemetan padurak nabarmentzen dira, Gernika-Lumoko hiribildutik Mundaka eta Laidako hondartzetarainokoak, zeinak babestutako espazioaren bizkarrezurra baitira. Matxixako lurmuturraren eta Elantxobe arrantzale-herriaren arteko itsasbazterrak ere ekologiaren eta paisaiaren aldetik balio handia du. Paduraren bi aldeetara luzetara kareharrizko bi mendizerra txiki daude, neurri handi batean artadi zabalez estalita. Altitude txikiagoko zonak, hau da, gizakiak eraldatu-ko dituenak, zuhaitziek eta landazabal atlantikoak eratzten duen mosaikoak estalita daude. Azken hori, noski, ohiko nekazaritza eta abelazkuntzako ustiapenen (hots, euskal baserriak izan ohi duenaren) ondorio da.

Padurek osatzen duten ekosistema konplexu eta dinamikoak era askotako izaki bizidun ugari hartzen du bere baitan, ornogabeak eta uretako hegaztiak batez ere, zeinak ur geza eta gazia nahasteak sortzen duen aberastasun izugarriaz aprobetxatzen baitira. Bizkaiko itsasoko gainerako estuario-

LA RESERVA DE LA BIOSFERA DE URDAIBAI

Enclavada en el corazón de Bizkaia, Urdaibai se extiende por la cuenca hidrográfica del río Oka. Éste discurre desde las faldas del monte Oiz y, tras dar lugar al estuario conocido como Ría de Mundaka o Gernika, desemboca en el Mar Cantábrico. La declaración en 1984 de este espacio como Reserva de la Biosfera tiene como objetivo compatibilizar la conservación de sus valiosos ecosistemas con el bienestar de sus pobladores.

Entre esos ecosistemas destacan las marismas, que se extienden entre la villa de Gernika-Lumo y los arenales de Mundaka y Laida y que constituyen el eje vertebrador del espacio protegido. La franja litoral se prolonga desde el Cabo Matxixako al pueblo marinero de Elantxobe y es también de un gran valor ecológico y paisajístico. A ambos lados de la marisma se disponen longitudinalmente dos cordales calizos cubiertos, en gran parte, por extensos encinares cantábricos. Por su parte, las zonas más bajas, y por lo tanto más transformadas, aparecen ocupadas por plantaciones forestales y por el mosaico que conforma la campiña atlántica, consecuencia de una explotación agrícola y ganadera tradicional que tiene en el típico caserío vasco su núcleo principal.

El complejo y dinámico ecosistema que conforman las marismas alberga una gran cantidad y variedad de seres vivos, especialmente invertebrados y aves



etan bezala, Urdaibai uretako hegazti migra-
tzaileentzat babes garrantzitsua da, bai negupa-
sarako eta bai migrazioetako egonaldietarako.
Estuarioa nazioarterako ere garrantzitsua dela-
ko, hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (BBE)
eta RAMSAR Gune izendatu zuten. Era bere-
an, Urdaibaiko Biosfera Erreserba Erabili eta
Kudeatzeko Plan Gidariak balio ekologiko han-
dia aitortzen dio, itsasbazterrekin eta artadie-
kin batera Babes Bereziko Eremutzat hartzen
duelako.

INGURUNE URTARRA URDAIBAIN: HEGAZTIEN ERABILERA

Ingurune urtarra eta, batez ere, padura oso
ekosistema dinamikoa eta konplexua da —eta ez
ingurune monotonoa eta berdina— eta hegaz-
tiek erabiltzeko zenbait giro ditu. Horregatik,
uretako hegaztien habitat nagusiak sailkatu
egin ditzakegu, Urdaibaiko ibaietatik abiatuz
padurako alderdiak zeharkatu eta itsasoan
amaitzen den ibilbidea eginez.

Ibaiak: beti ur geza dute eta tarte batzue-
tan ekologiarren aldetik kaltetuta daude, kanali-
zazioak eta poluzioa direla medio. Bertan
hegazti habiagileak (ur-zozoak, martin arran-
tzaleak eta buztanikarak) edo migratzaileak
(lertxun hauskara eta kulis-
ka txikia, adibidez) ikus dai-
tezke.

Lezkadiak: lezka arrun-
teko (*Phragmites australis*)
masa uniformeaz eraturik
daude, sakonera txikiko ur
gezetan eta paduretako ertz
bartzuetan. Lezkari eta uroi-
landa handientzat habia egi-
teko zonak dira, eta uroilan-
den habitata ere bai. Ur
irekiagoetako zonetan basa-
hateak, kopetazuriak eta txi-
linportak ibiltzen dira.

Polderrak: padurako
betelanak dira, abeltzaintza-
rako egiten direnak. Horre-
gatik, sega-larrez estalita
egoten dira. Hainbat hegaz-

acuáticas, que se benefician de la enorme rique-
za que genera la mezcla de aguas dulces y sala-
das. Al igual que el resto de estuarios cantábri-
cos, Urdaibai constituye un importante refugio
para las aves acuáticas migratorias, tanto en su
invernada como en sus escalas temporales
durante las migraciones. Como reconocimiento
internacional a la importancia del estuario, éste
fue declarado Zona de Especial Protección para
las Aves (ZEPA) y Área RAMSAR. De igual
modo, el Plan Rector de Uso y Gestión de la
Reserva de la Biosfera de Urdaibai reconoce su
alto valor ecológico al catalogarlo, junto con el
área litoral y el área de encinares cantábricos,
como Zona de Especial Protección.

EL MEDIO ACUÁTICO EN URDAIBAI: SU USO POR LAS AVES

El medio acuático y, en especial, la marisma
lejos de ser un medio monótono o uniforme es
un ecosistema muy dinámico y complejo que
comprende variados ambientes que determinan
su uso por las aves. Así, podemos establecer una
catalogación de los hábitats principales de las
aves acuáticas a través de un recorrido que,
partiendo de los ríos de Urdaibai, atraviese
las diferentes partes de la marisma y finalice
en el mar.

Ríos: poseen agua dul-
ce de modo permanente,
encontrándose en algunos
tramos ecológicamente de-
teriorados por canalizacio-
nes y contaminación. En
ellos podemos observar
aves nidificantes como los
mirlos acuáticos, los marte-
nes pescadores y las lavan-
deras, o migradoras como
las garzas reales y los anda-
rrios chicos.

Carrizales: formados
por masas uniformes de
carrizo (*Phragmites australis*)
se sitúan en zonas de agua
dulce someras y sus cerca-
ñas o bordes de marisma.





⚡ *Oka ibaia Muxika herria zeharkatuz/El río Oka a su paso por Muxika*
 ⇄ *Lertzun Hauskara/Garza Real*

tik itsasgoran pausaleku gisa erabiltzen dituzte, baina bertan kurlintak, hegaberak edo lertxunak ere elikatzen dira, eta denboraldi batez kurriloak eta antzarak ere egoten dira. Nekazaritzarako eta abelazkuntzarako erabiltzeari utzitako polderrak espezie aloktono inbaditzaileek (*Baccharis halimifolia* zuhaixkak, adibidez) kolonizatu dituzte eta hegazti-faunarentzat eragin kaltegarria izan dute.

Hareazko betelanak: itsasadarraren bi aldeetan daude eta zenbait dragatze-lanetatik ekarritakoak dira. Harea larria eta altuera txiki-kiko landaredia dute, ertz batzuetan milazkak direla. Hegazti-espezie askorentzat atsedentleku dira, eta maiz ikusten dira zangaluzeak erztetan. Bertan noizbehinka txirritxo txikienen bikoteren batek habia egiten du.

Marearteko zona: kanal bihurriko lohi-lautadez osatutakoa da. Landaredi gutxi edo batere gabekoetan zangaluzeak, antxetak eta anatioak elikatzen dira. Itsasgora denean urak

Son zonas de nidificación para los carriceros, los rascones y el hábitat de las esquivas polluelas. En las zonas de aguas más abiertas encontramos los ánades reales, las gallinetas o los zampullines comunes.

Pólders: son rellenos de marisma para uso ganadero, por lo que están cubiertos por pastizales de siega. Son utilizados por diversidad de aves como reposadero en las pleamares, pero en ellas también se alimentan los zarapitos, las avefrías o las garzas y recalán temporalmente especies como las grullas o los ánsares. Aquellos en los que se ha abandonado el uso agrícola y ganadero han sido colonizados por especies alóctonas invasoras como el arbusto *Baccharis halimifolia*, afectando negativamente a su uso por la avifauna.

Rellenos de arena: situados a ambos lados de la ría y procedentes de diferentes dragados. Poseen arena gruesa y vegetación de bajo porte, con tarajes en algunas márgenes.



⚡ *Axpe eta San Kristobal arteko marearteko aldea / Zona intermareal entre Axpe y San Kristobal*
 ⇒ *Txenada Hankabeltza / Charrán Patinegro*

estali egiten ditu, eta, ondorioz, hegazti arrainjaleek ere (ubarroiek, esaterako) erabiltzen dituzte. Altuera handiagoko landare halofiloen (ihiak, espartina edo itsas getozka) zonak eta munen hondakinak atsedean hartzeko erabiltzen dituzte.

Kanalak: beti ur gaziak estalita daude. Anatidoen eta espezie arrainjale igerilariak (zerra, aliota, ubarroi eta txilinportek, adibidez) elikatzeko eta atsedean hartzeko erabiltzen dituzte. Mokozabalak, lertxuntxoak eta lertxunak kanalen ertzetan elikatzen dira.

Hondartzak: padurako bokaleko hondar-metaketa naturalak dira. Batez ere antxeten-zat atsedean hartzeko lekua da.

Itsasbazterra: itsaslabar malkartsuenen zonetan itsas hegaztien kolonia garrantzitsuak daude: ekaitz-txori, ubarroi mottodun eta antxetenak batik bat. Izaro uhartea, gainera, ubarroiak eta lertxuntxoak lo egiteko erabiltzen dute. Azkenaldian azken espezie horretako kolonia bat ugaltzen ari da. Portuak eta badiak

Son importantes zonas de reposo para variedad de aves, siendo fácil observar limícolas en sus orillas. Alguna pareja de chorlitejos chicos nidifica de modo ocasional en ellos.

Marisma intermareal: formada por llanuras de limos o con canales sinuosos. En las zonas de escasa o nula vegetación se alimentan limícolas, gaviotas y anátidas. Son cubiertas por el agua durante las pleamares y por tanto también utilizada por aves ictiófagas. Las zonas con vegetación halófito de mayor porte (Juncos, Espartina o Verdolaga marina) y restos de munas son usados como zonas de reposo.

Canales: permanentemente sumergidos con agua salobre. Utilizados como zona de alimentación y reposo por anátidas y por especies ictiófagas nadadoras como cormoranes, serretas, colimbos y zampullines. Las espátulas, garcetas y garzas se alimentan en sus orillas.

Playas: depósitos naturales de arena en la desembocadura de la marisma. Utilizados como zona de reposo, sobre todo por gaviotas.

negua igarotzeko eta ekaitzetan babesteko erabiltzen dituzte zenbait antxeta, ubarroi eta altxido espeziek.

Itsaso zabala: bertan hainbat itsas hegazti ikus daiteke, migrazioan edo elikatzen: antxetak, txenadak, gabaia, zangak, marikoak edo altxidoak.

GOMENDATUTAKO BEHATOKIAK

Ondoren, Urdaibaiko hegaztiak ikusteko leku egoki batzuk proposatzen dizkizuegu. Uretako hegazti gehienak zona honetan beren migrazioan edo negua igarotzeko geratzen direnez gero, behatzeko garai onena udaren amaieratik udaberri artekoa da.

① **Matxixakoko itsasargia:** migrazioko itsas hegaztiak ikusteko behatoki onena da. Hegazti asko identifikatzeko ezinbestekoa da teleskopioa erabiltzea. Hegazti gehiago izaten dira, eta kostaldera gehiago hurbiltzen dira iparraldeko eta ipar-mendebaldeko ekaitza denean. Sarbidearen seinalea Bermeo eta Bakio bitarteko errepidean dago.

② **Bermeoko portua:** Bermeoko portuko kai-muturretatik hegazti urpekari asko (altzidoak, ubarroiak edo aliotak), antxetak, txenadak eta zangaluzeren bat edo beste (txirri ilunak eta harri-iraulariak) ikus daitezke, udazkenean eta neguan batez ere.

③ **Txatxarramendiko uhartea:** ilunabarrean antxetak, ubarroiak eta lertxuntxoak Izaro aldera nola joaten diren ikusteko egokia. Hegazti urpekariak ere badaude: aliotak eta anatidoak, adibidez. Sarbidea Sukarrietan markaturik dago.

④ **Axpeko padurak:** bisita itsasgoran egitea komeni da, zona hori zangaluzee, ubarroiak eta lertxuntxoak atsedean hartzeko erabiltzen dutelako. Lezka-

Litoral: las zonas de acantilados más abruptos albergan importantes colonias de aves marinas tales como paños atlánticos, cormoranes moñudos y gaviotas patiamarillas. La isla de Izaro es usada además como dormitorio por los cormoranes y garcetas, habiéndose establecido recientemente una colonia reproductora de esta especie. Los puertos y bahías son utilizados como zona de invernada y refugio en los temporales por diferentes especies de gaviotas, cormoranes y álcidos.

Mar abierto: en él puede observarse variedad de aves marinas en migración o alimentándose, tales como gaviotas, charranes, pardelas, alcatraces, págalos o álcidos.

PUNTOS DE OBSERVACIÓN RECOMENDADOS

A continuación os proponemos algunos lugares apropiados para la observación de aves en Urdaibai. Ya que la mayoría de las aves acuáticas recalán en Urdaibai en su migración o para invernar, las mejores épocas para la observación van desde el final del verano hasta la primavera.

① **Faro de Matxixako:** es el mejor punto para la observación de aves marinas en migración, siendo indispensable para identificar muchas aves la utilización de telescopio. Éstas son más numerosas y se acercan más a la costa con temporales del norte o noroeste. El acceso está señalizado en la carretera entre Bermeo y Bakio.

② **Puerto de Bermeo:** desde los espigones del puerto de Bermeo pueden observarse numerosas aves buceadoras (álcidos, cormoranes o colimbos), gaviotas, charranes y también algún limícola (correlimos oscuros y vuelvepedras) preferentemente en otoño e invierno.





⚡ Urdaibaiko Biosfera Erreserba eta behaketa-toki gomendagarriak
 Reserva de la Biosfera de Urdaibai y puntos de observación recomendados

di eta kaneletako ertzetan martin arrantzaleak eta uroilandak ikus daitezke. Busturia-Axpeko tren-geltokitik iristen da eta Gernikatik Bermeorako errepidean Axpen markaturik dago.

⑤ **San Kristobalگو hareatza eta padura:** padurako lekurik garrantzitsuena da uretako hegaztiak ikusteko, batez ere zangaluzeak, mokoabalak, lertxunak, aliotak, anatioak, etab. Itsasgoran edo itsasgora baino zerbait lehenago edo geroxeago joatea gomendatzen da, hegazti batzuk gertuagotik ikusi ahal izateko. Hareatzara Busturiko San Kristobalگو tren-geltokitik sartzen da, eta geltokira Gernikatik Bermeorako errepidetik iristen da.

⑥ **Gernika eta Foruko kanalak:** hiribilduaren inguruan ere ikus daitezke lertxunxoak, ubarroiak, antxetak, kuliskak, martin arrantzaleak eta paseriforme txikiak (lezkariak eta berdantzak, adibidez). Horretarako, oinez joan dai-

③ **Isla de Txatxarramendi:** recomendable para observar al caer la tarde la salida hacia Izaro de gaviotas, cormoranes y garcetas y por la presencia de aves buceadoras como colimbo y anátidas. El acceso se señala en Sukarrieta.

④ **Marismas de Axpe:** de visita preferente durante la pleamar debido a la utilización de la zona como reposadero por limícolas, cormoranes y garcetas. En los bordes del carrizal y canales es posible observar a los martines pescadores y a los rascones. Se accede desde la estación de tren de Axpe-Busturia, señalizada en Axpe, en la carretera Gernika-Bermeo.

⑤ **Arenal y marisma de San Kristobal:** lugar prioritario de la marisma para la observación de variedad de aves acuáticas, principalmente limícolas, espátulas, garzas, colimbo, anátidas, etc. Es recomendable ir en pleamar o poco antes o después de ésta para poder observar algunas aves más cerca. Se entra al arenal

↕ *Mundaka itsasadarra Axpen/La Ría de Mundaka a su paso por Axpe*





⤴ *Padura Kanaleko begiratokitik/La marisma desde el mirador de Kanala*

teke “itsasadarraren ubidetik” eta horko sarbidea Errenteriako zubiaren ondoan, Gernikan, dago, edo bestela Foruko tren-geltokian.

⑦ **Oka ibaiaren goi-ibilgua:** dauden ur-zozo bakanak, martin arrantzaleak edo buztanikara horiak ikus daitezke, eta, horiez gain, migrazioko lertxunak edo kuliskak ere bai. Berroiako auzotik iristen da, hau da, Zornotzatik Gernikarako errepidetik (30. km).

⑧ **Kanaleko behatokia:** ikuspegi zabaleko lekua eta paisaia-behatoki ezin hobea. Zenbait negutan antzarak eta kurriloak polderrean ikus daitezke, eta padurako gainerakoan uretako hegazti-espezie ugari egoten da. Gautegiz Arteaga Laidako hondartzarekin lotzen duen errepidean bertan dago eta behaketak bide-bazterretik teleskopioz egin behar dira.

⑨ **Laidako hondartza:** kanalak eta hondartzako zein inguruetako hareatzak leku egokia dira antxetentzat, ubarroientzat eta hegazti urpekariantzat. Gernikatik Lekeitiorako itsasertzeko errepideak Laidako hondartzako ekialdeko zona inguratzen du.

⑩ **Elantxobeko portua:** txikia den arren, bazter polit honetan gertutik ikus daitezke altxidoak, ubarroiak eta aliotak, nahiz eta gehienetan hegazti horiek urri izan. Neguko ekaitzetan ikustea errazagoa izaten da.

desde la estación de tren de San Kristobal en Busturia, accediendo a ella desde la carretera Gernika-Bermeo.

⑥ **Canales de Gernika y Forua:** en las inmediaciones de la villa también es posible observar garcetas, cormoranes, gaviotas, andarríos, martines pescadores y pequeños paseriformes como carriceros o escribanos. Para ello se puede seguir el camino a pie por el denominado “corte de la ría”, cuyo acceso se encuentra junto al puente de Rentería, en Gernika o desde la estación

de tren en Forua.

⑦ **Tramo alto del río Oka:** lugar apropiado para localizar a los escasos mirlos acuáticos, a los martines pescadores o a las lavanderas cascadeñas, además de garzas o andarríos en migración. Se accede desde el barrio Berroja (Km 30) en la carretera entre Amorebieta y Gernika.

⑧ **Mirador de Kanala:** inmejorable mirador paisajístico que brinda en invierno la oportunidad de observar ánsares y grullas en el polder y gran variedad de aves acuáticas en el resto de la marisma. Se encuentra en la misma carretera que une Gautegiz Arteaga con la playa de Laida, teniendo que realizar las observaciones desde el arcén con telescopio.

⑨ **Playa de Laida:** los canales y los arenales de la playa y alrededores constituyen un lugar idóneo para gaviotas, cormoranes y aves buceadoras. La carretera de Gernika a Lekeitio bordea la zona oriental de la playa de Laida.

⑩ **Puerto de Elantxobe:** pese a su reducido tamaño este bello rincón nos permite observar a corta distancia álcidos, cormoranes y colimbos aunque generalmente en escaso número, siendo más probable su presencia durante los temporales de invierno.

HEGAZTIEI BEHATZEA

Mendeak daramatzate zientzialariek hegaztiak aztertzen; izan ere, berez interesgarriak izateaz gain, gehienak inguruneko ingurumen-kalitatearen adierazle baliagarriak dira. Dena den, gaur egun gero eta zaletu gehiago inguratzen da hegaztien mundura, gure ingurunea ezagutu eta kontserbatzeko kontzientzia-mailak gorantz egin duelako eta fauna-mota horrek ezaugarri bereziak dituelako. Espezie gehien dituzten ornodunak dira; lehorreko eta uretako ingurunea erabiltzeko gai dira, eta, batez ere, hegan egiteko gaitasun liluragarria dute. Hegazti horietako batzuek migrazio ikusgarriak dituzte. Gainera, forma eta luma erakargarriak dituzte, eta askotan kantu atseginak entzuten zaizkie. Beraz, hegaztiei begiratzea gure ingurune naturalaz gozatzeko era atsegina da.

♣ *Hegaztizaleak San Kristobalen/Ornitólogos en San Kristobal*

LA OBSERVACIÓN DE AVES

Desde hace siglos las aves son objeto de estudio por parte de los científicos ya que, además del interés que despiertan por sí mismas, gran parte de ellas son útiles indicadores de la calidad ambiental del medio que las rodea. Sin embargo, cada vez son más los simples aficionados que se acercan al mundo de las aves debido a la progresiva concienciación en el conocimiento y conservación de nuestro entorno y a las especiales características de este grupo faunístico. Son los vertebrados con mayor número de especies; son capaces de utilizar el medio terrestre, el acuático, y sobre todo tienen la fascinante capacidad de volar, realizando algunas especies espectaculares migraciones; además poseen atractivos diseños y plumajes y, en muchos casos, emiten agradables cantos. Así pues, la observación de las aves es una gratifi-





♠ *Laida hondartza eta, atzean, Mundaka/Playa de Laida y Mundaka al fondo*

Hegaztiak erraz samar ikus daitezkeen animaliak izan arren, urrutira ikusi eta egoki identifikatzeko tresna optikoak erabili beharra dago. Ezinbestekoa da prismatikoez baliatzea; arinak eta argitsuak izatea komeni da, baina behatokitian erabiltzeko aski da 7-10 aldiz handiagotzeko gaitasuna izatea. Ikusi nahi diren hegaztiak urrutiago edo iristeko leku zailagoetan (itsasoan edo paduretari) baldin badaude, teleskopio ona erabiltzea gomendatzen da. Ornitologoek gehien erabiltzen dituztenek 20 eta 60 bitarteko handiagotze-ahalmena izan ohi dute, eta, ondorioz, tripode egonkorraren gainean erabili behar dira.

Halaber, oso baliagarria izaten da material grafikoa eta dokumentala erabiltzea. Zure eskuetan duzun landa-gida honek edo honen antzekoek marrazkiak, argazkiak eta testuak konbinatzen dituzte espezie bakoitza behar bezala identifikatzeko. Landa-koadernoak era-

cante manera de disfrutar de nuestro medio natural.

Aunque las aves son animales que se dejan ver con relativa facilidad, es necesario el uso de instrumentos ópticos para poder observarlas e identificarlas correctamente a cierta distancia. Es imprescindible el uso de prismáticos, siendo recomendable que sean ligeros y luminosos, aunque es suficiente con que tengan entre 7 y 10 aumentos, para que sean manejables en el campo. Si las aves a observar se encuentran a mayor distancia o en lugares menos accesibles—como es el caso del mar y las marismas—, es aconsejable el uso de un buen telescopio. Los más usados por los ornitólogos acostumbran a tener entre 20 y 60 aumentos, siendo necesario por tanto su uso sobre un trípode estable.

También es de gran utilidad el empleo de cierto material gráfico y documental. Las guías

biltzea ere gomendatzen da. Irtenaldi bakoitzeko data eta lekuaren ondoan, ikusitako espezieak eta informazio interesgarria idatziko ditugu, une horretan identifikatu ezin ditugun espezieen marrazkiak edo zirriborroak, adibidez. Informazio hori gero guk geuk edo beste ornitologo batzuek aprobetxatu ahal izango dute.

Beren soinuen bidez ere hegazti-motak ezagutu ahal izango ditugu. Lehorreko hegazti txikiak kantu landuenak eta bereizgarrienak badituzte ere, padurako zangaluzeak, adibidez, identifikatuz beren deiak bereizten ikasita. Horretarako, eskarmentua eta behin eta berriz aritzea dira bide onenak, baina merkantuan kantuen eta deien grabazioak badira, eta horiek soinuak ikasten lagun diezagukete.

Nolanahi ere, oso aberasgarria da ornitologiako zaletuen eta profesionalen arteko informazio- eta ezagutza-trukea. Horregatik komeni da ornitologoek elkarteetara hurbiltzea edo horietan sortzen den informazioa aldizkari eta buletin bidez eskuratzea. Internet bidez ere eskueran izan ditzakegu gaiari buruzko web orriak edo informazioa trukatzeko foroetan parte har dezakegu. Ez dugu ahaztu behar ornitologoek eta gainerako naturalisten arteko batasuna talde kontserbazionista askoren hazia izan dela eta askotan haien jarduerari esker pla-

de de campo —como esta que tienes en tus manos—, combinan dibujos, fotos y textos para ayudar a identificar correctamente cada especie. También es recomendable el empleo de un cuaderno de campo. En él apuntaremos junto a la fecha y lugar de cada salida, las especies observadas y aquella información que pueda ser de interés, por ejemplo dibujos o bocetos de las especies que no podamos identificar en ese momento. Así, esta información podrá ser aprovechada en el futuro por nosotros mismos o por otros ornitólogos.

Existe otra manera de acercarse al conocimiento de nuestras aves que consiste en utilizar la escucha de sus cantos y reclamos para identificar las especies. Aunque son las aves terrestres pequeñas las que emiten cantos más elaborados y característicos, podemos llegar a identificar, por ejemplo, las aves limícolas en la marisma aprendiendo a diferenciar sus reclamos. Para ello es necesaria cierta experiencia y constancia, pero existen en el mercado grabaciones de cantos y reclamos que pueden ayudar a familiarizarnos con ellos y distinguir estos sonidos.

En cualquier caso, es muy enriquecedor el intercambio de información y conocimientos entre todos los aficionados y profesionales de la ornitología. Por ello es conveniente acercarse a las asociaciones de ornitólogos o conseguir la información que generan a través de sus revistas y boletines. También en internet podemos acceder a páginas web sobre el tema o participar en foros donde intercambiar información al respecto. No debemos olvidar que la unión de ornitólogos y demás naturalistas ha sido el germen de muchos grupos conservacionistas y que, en muchos casos, gracias a su

♣ *Txirri arruntak atsedean hartuz/Correlimos comunes descansando*





♠ *Ubarroi Handia lumajea lehortzen ari da/Cormorán Grande secando su plumaje*

neta osoan ekologia aldetik balio handiko zonak suntsizetik salbatu direla.

Ornitologiaren zale garenok ere landetara joaten garenean ingurunea eta hegaztiak errespetatzeko gure kode etikoa bete behar dugu. Hegaztien ongizatea eta lasaitasuna ez dira galarazi behar guk gertuagotik ikusteko edo argazkiak atera nahi ditugulako. Beraz, Urdaibain ez da gomendatzen padurako zonara sartzea, ezta txakurrak aske direla inguruetan ibiltzea ere. Gure behaketak kanpoaldetik egin behar ditugu. Ahal denean, kamuflatutako behatokiak erabiliko ditugu eta kolore nabarmenik gabeko arropak jantzita joango gara. Ugalketa-zonetan oso kontuz ibiliko gara eta habietara zein txitengana ez gara hurbilduko. Gure bisitak, jakina, ingurunean ez du inolako arrastorik utzi behar.

actividad se han salvado de la destrucción zonas de alto valor ecológico en todo el planeta.

También los aficionados a la ornitología debemos mantener en nuestras salidas al campo un código ético de respeto al entorno y a las aves. El bienestar y la tranquilidad de las aves no debe alterarse por conseguir una observación más cercana o intentar sacar una fotografía. Así pues, en Urdaibai no es recomendable penetrar en la zona de marisma, ni acudir con perros sueltos en sus inmediaciones, realizando nuestras observaciones desde la periferia. Utilizaremos los observatorios camuflados cuando sea posible y llevaremos ropas de colores discretos. En las zonas de reproducción tendremos especial cuidado, absteniéndonos de acercarnos a los nidos y polluelos. Por supuesto, nuestra visita no debe dejar ningún rastro en el entorno.

HEGAZTIEN LUMAK

Mokoa eta hankak alde batera utzita, hegaztien gorputza lumaz estalita dago. Lumak desberdinak dira gorputzeko lekuaren arabera eta hegaztiak horiei esker hegan egin dezake, iragazkaitz bihurtzen dute eta temperatura erregulatzeko diote. Hegazti guztiak lumaberritzen dira. Aldika berriro egiten dituzte lumak eguzki-argiak eta urradurak higatu egiten dizkietelako. Lumajea da hegaztiak ongi identifikatzeko ezaugarri nagusietako bat. Hala ere, kontuan izan behar dugu espezie bereko hegaztiekin ere, adinaren, sexuaren eta gauden urtaroaren arabera, lumadi desberdinak izan ditzaketela.

Adina: kronologiari jarraituz, lumatxa da hegaztiekin izaten duten lehen lumajea. Ondoren, egun edo aste gutxi igarota, gaztetako lumajea eratzeko zaie eta hortik aurrera apurka-apurka helduaren lumadia lortzen dute. Hegazti askok, batez ere txikiak, helduaren lumajea hurrengo udaberrian izaten dute, ugaltzeko ahalmena izan dezaketelako. Beste zenbait hegaztiak (antxetek edo zangek, adibidez) urte batzuk behar izaten dituzte helduaren lumajea erabat izateko, eta bitartean heldutasunera iritsi gabeko hegaztien tarteko lumadiak izaten dituzte. Eztei ondoko migrazioan edo udazkenekoan, banakoen ehuneko handiak gazte-lumajea izaten du, urte horretan jaiotakoak direlako. Alderdi hori ez da ahaztu behar hegaztiei, batez ere zangaluzeei, garai horietan behatzen diegunean.

Sexua: hegazti-espezie askorengan (antxeta, lertxun edo ubarroiengan, esaterako) emeen eta arren lumajek antzekoak dira. Beste espezie batzuetan aldea oso txikia izaten da (txirritxoengan eta arrano arrantzaleengan, esaterako). Hala ere, beste batzuetan sexuaren arabera oso lumaje desberdina dute. Ahate gehienengan gertatzen da hori. Emeak kolore nabarrak ditu, batez ere nabarmentzen ez direnak, txitaldian inork nabari ez ditzan. Arrak, aldiz, kolore ikusgarriak ditu emeak erakartzeko. Ahate arrek ez dute txitaldian eta txitak hazten laguntzen, baina ugalketa-aldiaren ondoren eklipse deitutako lumaje apalagoa izaten dute denboraldi batean.

EL PLUMAJE DE LAS AVES

A excepción del pico y las patas, el cuerpo de las aves se encuentra recubierto de plumas. Éstas son diferentes según la zona del cuerpo y permiten al ave volar, la impermeabilizan y regulan su temperatura. Todas las aves mudan y renuevan su plumaje periódicamente debido al desgaste que sufren por la luz solar y la abrasión. El plumaje es una de las características principales para la correcta identificación de las diferentes especies de aves. Sin embargo, debemos tener en cuenta que, incluso aves de la misma especie pueden presentar diferentes plumajes, dependiendo de diversas circunstancias. Éstas son la edad del ave, el sexo y la época del año en que nos encontremos.

Edad: cronológicamente el plumón es el primer plumaje que adquieren las aves. Tras él, en pocos días o semanas, adquieren el plumaje juvenil para paulatinamente adquirir el plumaje de adulto. Muchas aves, especialmente las pequeñas, han adquirido este plumaje para la siguiente primavera desde su nacimiento, al ser ya potencialmente reproductores. Otras aves, como las gaviotas o los alcatraces, tardan varios años en alcanzar por completo el plumaje de adulto, pasando por diversos plumajes intermedios propios de ejemplares inmaduros. Durante la migración postnupcial u otoñal una alta proporción de individuos presenta plumaje juvenil, ya que han nacido ese mismo año, aspecto que no debe olvidarse al observar aves, especialmente las limícolas en esas fechas.

Sexo: en muchas especies de aves como las gaviotas o cormoranes los plumajes de las hembras y machos son similares. En otros casos poseen ligeras diferencias como los chorlitos o las águilas pescadoras. Sin embargo, otras presentan plumajes muy diferentes según su sexo. Éste es el caso de la mayoría de los patos. La hembra suele tener colores pardos poco vistosos para pasar desapercibidas durante la incubación de sus puestas, mientras que el macho posee colores llamativos con el objeto de atraer a las hembras. Los patos machos no ayudan en la incubación y crian-

Urte-sasoia: txitaldia hurbiltzen denean, hegazti askori aldatu egiten zaio lumajearen kolorea eta diseinua, beren bikotekide eta lehiakideei ugalketarako prest daudela jakinarazteko. Zangaluze askok, mokozabalek edo aliotek, adibidez, hilabete horietan luma ikusgarriagoak dituzte. Txitaldia igarotakoan berriz ere lumaje apalagoa eta uniformeagoa izaten dute. Migrazioko garaian hegazti-talde berean maiz ikus daitezke bi jantziak eta tarteko lumajeak.

URETAKO HEGAZTIAK

Uretako hegaztiak beren bizi-ziklo osoa edo zati bat ingurune urtarrean igarotzen dutenak dira. Hegazti horietako gehienak uretan edo uretatik hurbil elikatzen dira, eta (salbuespenak badauden arren) habitat horretan ugaltzen dira. Dena den, jakina, beren habiak leku lehorrean egin behar izaten dituzte, dela lurrean (belarretan, harkosko artean edo hondarretan), dela haitzean edo dela landaredian.

Hala ere, uretako hegaztiak ez dira denak elkarren ahaide, eta zenbait hegazti-taldetakoak dira. Urdaibain bizi diren uretako hegaztiak, adibidez, 26 familiatakoak dira, eta guztira ehun espezie baino gehiagokoak daude. Urdaibaiko ingurune ez urtarretan lehorreko beste horrenbeste hegazti dago.

✧ *Kaio Hankahoriaren arrautzak/Huevos de Gaviota Patiamarilla*



za de las polladas, aunque tras la época reproductora también adquieren temporalmente un plumaje más discreto conocido como eclipse.

Época del año: cuando se acerca la época de cría muchas aves adquieren variaciones en el color y diseño de su plumaje con el objeto de transmitir a sus parejas y sus competidores que están preparados para la reproducción. Así, muchos limícolas, las espátulas o los colimbos poseen un plumaje mucho más vistoso en esos meses. Tras la cría adquieren de nuevo un plumaje más modesto y uniforme. En épocas de paso migratorio es frecuente poder observar dentro del mismo grupo aves en ambas libreas y también con plumajes intermedios.

LAS AVES ACUÁTICAS

Las aves acuáticas son aquellas que ocupan en la totalidad o parte de su ciclo vital el medio acuático. La inmensa mayoría de éstas se alimentan dentro o cerca del agua y se reproducen (si bien, hay excepciones) también en este hábitat aunque, lógicamente, instalan sus nidos en un lugar seco, ya sea el suelo (hierba, guijarras o arena), la roca o la vegetación. Sin embargo, no todas están emparentadas, perteneciendo a distintos grupos de aves. Así, las aves acuáticas que habitan en Urdaibai pertenecen a 26 familias diferentes, sumando más de un centenar de especies. En los medios no acuáticos de Urdaibai habitan otras tantas aves terrestres.

Aunque algunas aves acuáticas como las lavanderas son muy similares a sus parientes terrestres, la adaptación al medio acuático ha hecho que casi todas presenten una morfología muy particular. Aquellas que necesitan sumergirse para alimentarse presentan un cuerpo compacto, hidrodinámico y con alas relativamente cor-





♠ *Abozeta Arrunta jaten/Avoceta Común alimentándose*

Buztanikarak eta uretako beste hegazti batzuk beren lehorreko ahaideen oso antzekoak izan arren, ingurune urtarrera moldatu beharrak ia denak oso morfologia bereziaz hornitu ditu. Elikatzeko urperatu beharra dutenek gorputz trinko eta hidrodinamikoa dute, altzidoek, txilinportek eta martin arrantzaleek, esaterako. Zangek eta gabaiek hego luze-luzeak dituzte, itsas gainean hegan etengabe ibiltzen direlako.

Hala ere, mokoaren eta hanken diseinuan eragin du ingurunera moldatu beharrak aniztasun nabariena. Lertxun, kurrilo eta zikoinek hanka guztiz luzeak dituzte, baina aliotek edo txilinportek oso hanka motzak dituzte uretara-ko joera handia dutelako (nekez ikusten dira lehorrean, hor ibiltzen oso baldarrak dira-eta). Uretako hegazti askok oin palmatuak dituzte ur gainean edo ur azpian igeri egiteko. Mokoaren diseinua espezie bakoitzaren elikadura-motaren araberakoa da eta aniztasun handia dago. Arrainez elikatzen diren hegazti gehie-

tas. Es el caso de los álcidos, zampullines o de los martines pescadores. Otras como los alcatraces y las pardelas poseen alas considerablemente largas debido a los continuos desplazamientos que realizan volando sobre el mar.

Sin embargo, es en el diseño del pico y las patas donde la adaptación al medio ha producido una diversidad más evidente. Mientras las garzas, las grullas y las cigüeñas poseen patas extremadamente largas, los colimbos o los zampullines poseen unas patas muy cortas debido a sus hábitos extremadamente acuáticos, siendo difícil verlos en tierra, donde se mueven muy torpemente. Muchas aves acuáticas presentan también los pies palmeados para nadar y bucear. El diseño del pico responde al tipo de alimentación de cada especie, existiendo una gran variabilidad. La mayoría de las aves que se alimentan de peces poseen picos potentes y afilados, mientras que las aves limícolas



♠ *Ubarroi Handia eta Mottoduna eztei lumajearekin/Cormorán Grande y Moñudo en plumaje nupcial*
 ⇒ *Lertzuntxo Txikia habian/Garceta Común en su nido*

nek moko indartsu eta zorrotzak dituzte, baina limoetako hegaztiak moko estu eta zenbait luzeratakoak izaten dituzte, espeziearen arabera, ornogabeak dauden lohi azpiko sakoneretara moldatzeko. Azpimarratzekoa da kurlintak duen mokoaren diseinu bitxia, luzea eta beherantz kurbatutakoa, lohiaren azpitik elikagaiak ateratzeko; abozetena, hau da, luzea baina gorantz kurbatua, uretako ornogabeak harrapatzeko; eta, batez ere mokozabalena, luze-luzea, zabala eta zapala.

Uretako hegaztiengan beren espezie-aniztasunagatik azpimarratzekoa da karadriformeen ordena, honako familiak barne dituena: altzidoak (pottorroak, martinak eta lanperna-musuak), laridoak (antxetak, txenadak eta marikoiak) eta zangaluzeak (txirriak, txirritxoak, kurlintak, kuliskak, bernagorriak...). Azken horiek ugari dira eta erraz ikus daitezke Urdaibaiko paduran elikatzen.

poseen picos estrechos, de longitud variada según la especie, como adaptación al consumo de invertebrados de los limos a diferentes profundidades. Cabe resaltar el curioso diseño del pico de los zarapitos, largo y curvado hacia abajo, para extraer su alimento de la profundidad del limo; el de las avocetas, también largo, pero curvado hacia arriba, para atrapar los invertebrados del agua y, especialmente, el de las espátulas, extremadamente grande, ancho y aplanado.

Dentro de las aves acuáticas, destaca por su diversidad de especies el orden Charadriiformes, que incluye la familia de los álcidos (alcas, araos y frailecillos), los láridos (gaviotas, charranes y págalos) y los limícolas (correlimos, chorlitos, chorlitejos, zarapitos, agujas, archibebes, andarríos...), siendo estos últimos muy frecuentes y fáciles de observar alimentándose en la marisma de Urdaibai.

UGALKETA

Gainerako hegaztiak bezala, uretakoak udaberrian ugaltzen dira, martxo eta uztaila bitartean, baina espezieren bat edo bestek (ubarroi mottodunak, adibidez) ugalketa-lumajea izan eta ugalketa-lanak neguan has ditzake.

Lurrean edo haitzaren arrailduretan habia egiten duten espezieek, arrautzak zuzenean uzten dituzte edo habia egiteko material gutxi ekarrita. Landaretan habia egiten duten hegaztien habia landuagoa izaten da, saski-formakoa eta landare-materialez egina. Jaiotakoan gurasoekiko duten mendekotasuna ere maila askotakoa izan daiteke. Txirritxo txikien txitak gurasoen ondoren jaiotako egunean bertan joateko gai badira ere, ekaitz-txorien txita bakarra bi hilabetez egoten da habian gurasoen mende. Ugalketan hegaztiak asaldurekiko oso sentikorrrak dira. Klima aldetik giro txarra izatea, harraparien lana eta, batez ere, gizakiak eragindako eragozpenak, aski izaten dira arrautzak edo txitak galtzeko.

Zoritxarrez Urdaibain habia egiten duten uretako hegazti-espezieak gutxi dira. Hori, besteak beste, ur gezako maila egonkorreko zona gutxi dagoelako da, baina batez ere giza presioa handia delako (hareatzetan batik bat). Ondorioz, txirritxoek, itsas mikek, txenaderek eta abarrek ugaltzeko aukerarik ez dute izaten. Hala ere, lezkadi itxietan eta inguruetan babes egokia izaten dute kumeak ateratzeko uroilanda handiek, lezkariak eta basahateek. Zorionez Ogoñoiko itsaslabarretara heltzea oso zaila delako eta Izaro uhartea isolatuta dagoelako, ekaitz-txorien, ubarroi mottodunek, kaio hankahoriek eta, azkenaldian, lertxuntxoek ere habiak egiten dituzte.



LA REPRODUCCIÓN

Como el resto de aves, las acuáticas realizan su reproducción durante la primavera, entre los meses de marzo y julio, aunque algunas como los cormoranes moñudos pueden adquirir el plumaje de cría, e incluso iniciar las tareas reproductoras, ya en el invierno.

